

MASKARADAK

LES MASCARADES

Xiberoko herri ihauteriak
Carnaval populaire de Soule



*SÛ AZIAREN sail bereziak
Les cahiers de SÛ AZIA*

1993.ko Urtarila - N° 2 Zbk.- Janvier 1993
(Ré-édition 2004)

*Euskal Kultur Erakundea partaide
Avec la collaboration de l'Institut Culturel Basque*

Sail berezi horik SÜ AZIAk argitaratürük dira ,
Euskal Kultur Erakundea,
Frantziako kùltür ministerigoako müsika züzendaritza,
Eusko Jaurlaritza, Akitania Eskualdea
eta FIDAR alkargoaren lagüngoarekin

*Ces cahiers sont édités par SÜ AZIA,
avec le concours de l'Institut Culturel Basque,
le Ministère de la Culture (Direction de la Musique)
du Gouvernement Autonome Basque et de la Région Aquitaine
(Convention Aquitaine / Euskadi) et du FIDAR.*

Jean Dominique Lajoux, Thierry Truffaut,
François Fourquet eta Kepa Fernandez de Larrinoa
beren lanegiten gatik eskertzen dütügü.
Argazkiak Sü Aziako bilgietarik
eta ARGIA astekarietik hartürük.
Marrazkiak Pamiela argitaldariaaren 'Orhipean' libürütik hartürük .

*Nous remercions pour leur collaboration Jean Dominique Lajoux,
Thierry Truffaut, François Fourquet et Kepa Fernandez de Larrinoa.*

*Photos extraites de la revue ARGIA
et de la collection d'archives de Sü Azia.
Dessins extraits de la revue Orhipean - Editions Pamiela.*

*Libürüxka honen adelatzen parte hartü düe :
Ont participé à l'élaboration de ce livret :*

*Ützülpenetan :
Traductions
Marxel Bedaxagar - Margarita Etchart
Maite Lephaille - Allande Socarros*

*Bekanikaz joite eta moldatzean :
Pour la partie technique
Christine Etcheberrigaray
Frantxoa Hastaran*

Depuis maintenant plusieurs mois, l'association SÜ AZIA travaille sur un projet de collecte du chant traditionnel souletin. But de l'opération : garder des aspects vivants de notre patrimoine chanté, qui possède des particularités et spécificités dont la valeur est reconnue dans toute l'Europe.

Concrètement, ceci se traduit par la création d'archives qui seront, à terme, installées dans le cadre de la future Maison du Patrimoine de Mauléon. Nous recueillons des anciennes photos, cartes postales, cahiers de chants, cassettes et bandes son, des affiches, livres, textes divers...

A partir de là, sont engagées des actions visant à redynamiser la pratique de la danse et du chant souletins. Ainsi seront éditées des cassettes comportant des extraits d'anciens enregistrements, des documentations sur les pastorales et mascarades, des collections de cassettes-livrets pour l'apprentissage de vieilles chansons, des cassettes présentant les musiques traditionnelles souletines (comme la collection "Xiberoko Dantza Jauziak" dont la cassette n°2 est sortie à l'occasion de Dantzari Eguna ou "Ostatü Kantore" dont la première vient de sortir)

Vous aussi, si vous possédez de tels documents dans vos armoires et vos greniers, si vous avez conservé des photos, des cahiers ou tout autre document ayant trait au chant et à la danse souletines, aux pastorales et aux mascarades, PRETEZ NOUS LES quelques jours, que nous puissions en faire des REPRODUCTIONS. Tous les originaux seront rendus à leurs propriétaires!

Ensemble, nous réaliserons les archives de la danse et du chant souletins.

(Livret: réédition 2004)

SÜ AZIA - Ondarearen etxea - 64130 Maule
www.suazia.com

Bada jagoiti honenbeste bat hilabete SÜ AZIA alkarte Züberoko ohidürazko kantoreen biltze bati lotü dela. Lan honen helbürüa argi da : kantore nola ere dantzako gure herri hontarzünak bizirik begiratzea, sail hoietan, Züberoa, Europa güzian aipü diren berezitarzün elibaten jabe beita.

Abiatüz geroz izkiribü, argarzki eta sonü gisako artxibak egin eta egiten ari gira eta egün batez hoik oro baliagei dirateke Maulen plantatüko den Herri Hontarzünaren Etxean. Hala ere biltzea eta sailkatzea ez da aski, kültüra baten biziarazteko. Arren, egintza bizi emaile elibat plantatü dütügü, hala nola leheneko grabatze elibaten kazetaz arragertzea; pastoral eta maskaradetzaz argibide libürüxkak argitaratzea ; kazeta eta libürütto zonbaiten bidez leheneko kantore elibaten berriz ikaseraztea ; züberotar dantza jauziak kazetekilan irakastea (hoien bigerren zinta Dantzari Egunean agertü zen).

Züek ere, etxeko xoko batetan, kaier bat kantore xahar elibateki edo argazki zaharrak, hots Züberoko kantore nahiz dantzareki, maskarada ala pastoralareki zerbait ikusteko düanik bazünüe, egün zonbaitez gure esküetan üztea galtegin geneikezüe. KOPIAK EGIN BEZAIN SARRI, ÜTZÜLIKO DEITZÜEGÜ !

Ororen artean, Xiberoko kantore eta dantzak begiratüko dütügü eta bizi berri bat emanen deiegü.

(Berriz agerrarazirik: 2004)

SÜ AZIA - Ondarearen etxea - 64130 Maule
www.suazia.com

EDIRENGIA

SOMMAIRE

Zer dira Maskaradak ?	4	<i>Que sont les Mascarades ?</i>
		Marcel Bedaxagar
Xiberoko maskaradak	14	<i>La mascarade souletine</i>
		Jean Dominique Lajoux
Negütik bedatseala, Xiberoko maskaraden urtaroa.	28	<i>De l'hiver au printemps un temps : celui des mascarades souletines</i>
		Thierry Truffaut
Mündüaren ützültzea maskaradetan	35	<i>L'inversion du monde dans la mascarade</i>
		François Fourquet
Xiberoko maskaradetako Gatüzainaz	47	<i>Contribution à l'étude du gatüzain souletin</i>
		Thierry Truffaut
Maskaradetako ohidüra berezia:		<i>Un aspect de la mascarade :</i>
bazkariteko kümitüak	51	<i>l'invitation au repas</i>
		Kepa Fernandez de Larrinoa
Libürü Edirengia	56	<i>Bibliographie</i>

La Mascarade

Marcel Bedaxagar

Ordiarp, Esquiule, Barcus, Tardets, Musculdy, Aussurucq, Alçay, Sainte Engrâce, peut être bientôt. Beaucoup de mascarades parcourent la Soule ces dernières années. Pour présenter toujours le même spectacle et pour apporter la bonne humeur, comme le veut la loi du carnaval.

Chacun y trouvera son compte : les uns préféreront la danse, d'autres les discours des bohémiens et des chaudronniers, d'autres encore les piteries de Pitxu.

Mais la plupart apprécieront les mascarades dans leur globalité : admirant la finesse des "points" des danseurs, riant de bon coeur aux critiques ou grossièretés des "Noirs".

Mais que sont les mascarades?

C'est ce que nous avons voulu évoquer dans ce modeste livret, en décrivant brièvement leur déroulement, et en essayant d'apporter un regard nouveau sur leur signification.

Pour cela nous nous sommes adressés à des spécialistes que nous connaissions pour avoir étudié de près cette forme de théâtre de rue. Chacun a apporté sa contribution à ce livret, trop bref résumé en quelques pages de longues années de recherches passionnées.

Maskaradak

Marcel Bedaxagar

Urdiñarbe, Eskiula, Barkoxe, Atarratze, Muskildi, Altzürükü, Altzai, laster Santa Grazi hain sarri : maskaradak aloia hanitx kurritzen dira Xiberoan azken ihautirietan

Beti ber jei ederraren erakusteko eta jenteen alagerazteko lehenik, ihautiriko legeak nahi düan bezala.

Bakoitxak gustüko düüan gaüzak edirenen dütü hor. Edo dantzak, lehenago Aitzindari izan direnentako edo perediküak Buhame edo Kauter orientako, edo Pitxuren kokillot eta janfutrekeriak beste zonbaitentako.

Haatik, beren osotarzüean dütüe haboroxeek maskaradak hartüko: püntü fiak amiratzez bai eta ele eta muldegaitzkerier erri egitez.

Bena zer dira xüxen maskaradak ?

Sail horri gira libürüxka hontan lotü nahi izan, erraitetz lehenik nola iragaiten diren orai, ikustez ere zer lizatekean hainbeste jokü edo jeien erran nahia.

Maskarader huilantik jarraiki diren eta ezagützen güntüan jakintsuner gira hortarako hersatü: bakoitxari galtegitzez egin düüan ikerketen bildümaxkot bat egin dezaküien ahal bezain sinpleki.

LIBÜRÜ EDIRENGIA

BIBLIOGRAPHIE

Alford, V. : "*Les mascarades souletines en 1914 et aujourd'hui*"
Eusko Jakintza, 1949.

BADE, J. : "*Le Carnaval chez les Basques de la Soule*"
Observateur des Pyrénées, 1840.

BARANDIARAN, J. : "*Dillinario de mitologia vasca*"
La grande encyclopédie basque, Bilbao, 1972.

BORDES, C. : "*Cortèges et danses du Pays Basque*"
Paris, 1914-1915.

DUVERT, M. : "*Les Mascarades nocturnes en Soule*"
Reve Dantzari, Bilbao.

GALLOP, R. : "*Un zamalzain grec*"
Gure Herria, 1927.

GUILCHER, J.M. : "*La tradition de danse en Béarn et Pays Basque*"
Editions de la maison des sciences de l'homme, Paris, 1984.

HERELLE, G. : "*Les mascarades souletines*"
R.I.E.V., 1914.

JAUREGUIBERRY Dr : "*Mascarades souletines*"
Libro de oro, 1935.

MAZERIS, J.B. : "*Maskadak*"
Gure Herria, 1933

SALLABERRY, J. : "*Les mascarades souletines*"
Tradition au Pays Basque, 1899.

Jean Dominique LAJOUX est ethnologue au C.N.R.S. Dans ses recherches sur le "*calendrier et les fêtes calendaires*" il a parcouru l'Europe. Il peut ainsi comparer nos mascarades à d'autres fêtes ou rites de carnaval. C'est ainsi qu'il avance l'idée du cortège nuptial, de "rituel" permettant de marier les hommes avec l'année dont ils tentent de se concilier les faveurs.

Thierry TRUFFAUT est membre de l'association *Lauburu* et d'*Eusko Ikaskuntza*. Il a été aussi le guide de Jean Dominique Lajoux en Pays Basque ; et donc a son école. La grande révolution que fut le passage du calendrier lunaire au calendrier solaire a aussi ses répercussions dans la mascarade. C'est ce qu'évoque ici Thierry Truffaut, en s'intéressant également à la provenance du Gatüzain qui était un peu mystérieuse encore.

François FOURQUET de l'association *Ikerka*, est l'un des rares chercheurs à s'être intéressé de près aux prêches de la mascarade jusque-là hermétiques aux non-bascophones. Pour lui, ces discours expriment "l'inversion du monde".

Il ne faudrait cependant pas croire que c'est pour ces raisons que l'on "monte" des mascarades actuellement, même si tout apparaît spontanément, et on peut dire que le désir de réunir la jeunesse, de perpétuer les traditions, de faire la fête sont les principales motivations, comme a pu le constater **Kepa FERNANDEZ DE LARRINOA**, chercheur du département éducation et université du gouvernement autonome d'Euskadi, détaché

Jean Dominique LAJOUX C.N.R.S.-ko (Centre National de la Recherche Scientifique) etnologo bat da : Europa güziaren gainti kurrütü da, ohidürazko besta herrikoien ikertzez : holaz dü idea berri bat aitzinatzen gure maskaradentako : urte berria anuntzaten ziren ezteietarik ere baliratekeala (Jaun Andreak).

Thierry TRUFFAUT Lauburu alkartean da bai eta ere *Eusko Ikaskuntzan*. Lajoux-ekin ibili da lüzaz. Erranen deikü nola argizagiari bermatzen zen egünarietik ekiaren arabera eginik den egünariala iragaiteak mündüa iharrausten düan eta hori ere nola agertzen den maskaradetan, Gatüzainaren sorter-roaz egin dütüan ikerketen berri emaitzez ber zoinean.

Ikusten denak bere inportantzea balinbadü, entzüten denak ere bere erran nahia badü. Perediküer da arren *Ikerka* alkarteko **François FOURQUET** interesatü. Harentako presentatzen düe "Mündüaren bürüz behera".

Ez dira horregatik oraiko maskaradak jakitate horien arabera antolatürik, bardin ezagün edo nabari badira ere. Hori dü, *Eusko Jaularitzaren* hezkuntza eta unibertsitateko ikerlaria eta Paueko unibertsitateari lotürik den **Kepa FERNANDEZ DE LARRINOA** antropologoak agerrazi bere tesian : maskaradetako bazkariet lotürik diren üsantzez ere arrenküratzez.

actuellement à l'université de Pau pour ses études sur le théâtre populaire souletin.

En fait, un livre serait nécessaire pour parler des mascarades comme il se doit. Puisse quand même ce livret répondre à quelques questions et en provoquer d'autres, afin qu'il y ait et qu'on parle encore des mascarades.

Les mascarades

Pour faire des mascarades, il faut surtout une bonne équipe de danseurs. La jeunesse d'un village se rassemble ensuite, et décide de monter les mascarades, sous les conseils éclairés des anciens.

Les rôles sont distribués entre tous. Les plus lestes seront *danseurs*, ceux qui apprennent à danser, *maréchaux-ferrants* ou *Küküllero*, les plus comiques *bohémiens* ou *chaudronniers*, et le plus habile fera *Pitxu*, le pitre.

Il y a maintenant de trente à quarante acteurs. Ils furent plus nombreux dans les grands villages (80 à Chéraute dans les années 1930).

Les mascarades se déroulent en période de carnaval, la première représentation (le 1^{er} janvier) et la dernière (le mardi gras) dans le village organisateur. Actuellement ce calendrier n'est pas toujours respecté. Entre ces deux dates, périple à travers la Soule pendant tout le carnaval. Jusqu'avant la 2^{ème} guerre mondiale, on brûlait San Panzar le mercredi des Cendres, premier jour de Carême. C'est là qu'on faisait les comptes. On donnait le salaire d'un artisan aux musiciens.

Libürü oso bat behar lizateke maskaradetzaz behar bezala mintzatzeko. Bena libürüxka honek galtore zonbaiti pürü ihardetsiko deie agian eta beste zonbait sorraraziko balinban. Iraün dezala, maskaradak lüzaz izan ditean orano.

Maskaradak

Maskaraden egiteko dantzari honak behar dira lehenik. Gazteria jüntatzen da gero, zaharragoer aholkü galtegitzez. Denen artean dira kargüak emanik. Dantzari hoberenak *Aintzindari* dirateke, entrabalak *Marrexal* edo *Küküllero*, erri eginarazten laket direnak *Buhame* edo *Kauter*, kkillot eta abilenak *Pitxu* eginen dü.

Hogeita hamar berrogei partaide da orai maskaradetan. Hanitzez haboro izan da lehenago herri handietan (80 Sohütan 1930en altexean) gütiago ere Basabürüko herri ttipietan.

Ihautirian dira egiten. Urtatsez hasten dira egiten dütüan herrian, hor berean ürrentzeko ihaute astearteareki, herriz herri kurritez artean (azken gerlala artino (1940) San Pantzart errearazten zen haustez eta kontüka egiten ordüan). Orai maskaradak berantago hasten dira, eta goroxüman ere kurritzen dira üsüenean. Eskülangile baten jonalea emaiten zen müsikalarieri.

2 - La loi des rôles : lorsque les acteurs et ceux qui les reçoivent tiennent ou ont tenu le même rôle,

3 - La loi de la camaraderie : lorsque invité et invitant sont de grands amis,

4 - La loi de la famille : quand invités et invitants sont de même sang.

5 - Et enfin la loi de la dette lorsque celui qui invite fut auparavant invité chez la personne qu'il reçoit actuellement"

Comme on le voit aisément dans l'organisation des mascarades, autrement dit dans l'expression d'un rituel esthétique, les relations entre les villages de Soule, mais également propre au village organisateur, se manifestent sur la place publique.

Boire, chanter, danser, improviser, se déguiser, se comporter... tous ces phénomènes répondent à des critères, parfois en les suivant au plus près parfois en s'éloignant.

Dans ce dernier cas de figure, les comportements et réflexions liés à la vie sociale se manifestent sur un mode politique par l'expression corporelle, par le recours à la beauté et dans l'ambiance festive.

3. Askazgoaren legea, kùmitatùia eta kùmitazalea ber odoleko direlarik.

4. Adiskidetarzünaren legea, kùmit dena eta kùmitazalea lagün direlarik.

5. Zorraren legea, oraikoan kùmitatzen düana aitzinetik kùmit denaren etxen kùmitatürük izan delarik .

Aisa ikusten denaz, maskaradak plantatzean, hots eginaldi erritüal eta estetikoak plazalat agertzean, Züberoko herrien arteko harremanak pizten dira, bai eta herri antolazalearen barneko arrolatzeak . Jana, edana, hitzaldiak, kantoreak, dantzak, bersetak, jaunstecko manerak, ibilmoldeak ... Gertakizün güzi horik oro aitzinetik jarriren diren eredü edo modelo zombaiti jarraikitzen zaitze ; noiztenka eredüari hüilantik jarraikitzecko, beste ordüz eredütik hürrüntzecko. Hala izatez, gertakizün horiek gizarte bizitzearekilanko egon molde eta gogoetak poetikoki, korpitz metaforaz, edertarzünaz baliatürük eta jei giro bizi bizian agerrarazten dütüe.

Les représentations se déroulent le dimanche. Mais avant, elles se faisaient également en semaine. Le jeudi gras, les mascarades étaient à Tardets (il y en eu jusqu'à 3 le même jour) et le dimanche gras à Mauléon.

Les mascarades se déplacent dès le matin, pour arriver au village qui les invite. Elles doivent franchir les barricades, symbolisées actuellement par une bouteille de vin et quelques verres posés sur leur route. Autrefois, il fallait gagner l'honneur d'entrer au village, en sautant au dessus d'un obstacle posé en travers ou en faisant une détonation (poudre de mine) de plus que le village qui reçoit.

Après ces barricades, les sauts basques sont donnés sur la place du village, puis les acteurs sont invités à déjeuner, selon des règles définies (voir description de Kepa Fernandez de Larrinoa).

Autrefois, les mascarades de Haute Soule se jouaient à la suite : barricades, représentations sur la place, petit bal populaire (polkas, mazurkas, eskutix) et ce n'est que vers trois ou quatre heures de l'après-midi qu'on allait déjeuner. Maintenant, les jeux et danses se font l'après-midi :

Deux groupes se dégagent des mascarades.

* **LES ROUGES** : beaux costumes, jolis danseurs, toujours "comme il faut". Ce sont les autochtones,

* **LES NOIRS** : Sales, grossiers, semant le désordre. Ce sont les "étrangers".

Igantez dira igaraiten. Lehen, astegüenez ere kurrutzen ziren. Üsantxak nahi züan maskaradak Atarratzen izan litean Lerdoz, eta Maulen igante gizeenez, ihautiriko azken igantearekin. Bat beno haboro balin bazen ber urtean, oro han jüntatzen ziren egün hortan.

Goizetik abiatzen dira, kùmitatzen dütüan herrialat heltzeko. Hor Barrikadak egiten dütüe. Ardu pitxer bat eta godalet baten aitzinean dantzan ari dira herriko sargian lehenik eta "traba" hor eginik zaien aldikal. Lehen, herrian sartzeko ohorea irabazi behar zen trebes ezarriren zen haga baten gainetik jauztez edo batzarri egiten züan herriak tiro bat beno haboro tiratzez polbora larriarekin.

Herriko plazala hel eta, dantza jauziak emanik dira, eta gero maskaradakariak bazkaraitera kùmit dira adere edo arau berezi elibaten arabera (ikus Kepa Fernandez de Larrinoaren ikerlana).

Lehenago, Basabürükö maskaradak бүрүтик бүрү emanik ziren; sonü ttipi bat bazen gero, txülüla eta atabalarekin (kadrillak, polka, eskütix) eta ondotik ziren maskaradakariak bazkaritera joaiten. Orai arrastirian dira joküak eginik.

Bi jente mota agertzen da maskaradetan :

* **Gorriak** : jauntsi ederrekin, dantzari, xüxen ibiltzale, herritarrak dira (horkoak).

* **Beltzak** : zikin, itsusi, ahoteiü, arunt, arrotzak (kanpotik jinik)

A) LES ROUGES

* **Txerreroa** : serait le gardien du troupeau de porcs. A l'aide de son balai à queue de cheval, il ouvre la route aux mascarades. Il porte des clochettes de vache à la ceinture.

* **Gatüzaina** : le "chat" : il manipule une sorte de ciseau. Mais ce personnage a beaucoup évolué au cours du siècle dernier. Selon Thierry Truffaut, ce serait un arlequin (voir sa contribution).

* **Kantiniersa** : la cantinière : autrefois, une "bohémienne" tenait ce rôle. Mais lors d'une visite du Prince Louis Lucien Bonaparte, on aurait jugé ce costume plus présentable.

* **Zamalzaina** : l'homme-cheval le centaure ?

* **Ensenaria** : le porte-enseigne qui manipule le drapeau souletin ou basque.

Ces cinq personnages exécutent les danses les plus spectaculaires : pour arriver à ce niveau ils ont suivi un long apprentissage. En principe le *Txerrero* est un homme fort et vigoureux. La *Cantinière* doit être agile et "beau gosse", pas trop grand. Le *Zamalzain* très leste et puissant (le meilleur danseur) . L'*Enseinari* assez grand et fin danseur. Le moins bon est placé *Gatüzain*.

* **Jauna eta anderea** : (le monsieur et sa dame). *Jauna* commande la mascarade. Il est responsable de son bon déroulement (autrefois il restait chef de la jeunesse jusqu'aux prochaines mascarades dans le village).

Anderea est habillée de blanc, comme une mariée ce qui, d'après Jean Dominique Lajoux, n'est pas un hasard.

A) GORRIAK

* **Txerreroa** : Xerrizaina lizateke. Aitzinean horra da, bidea zabaltzen dü makila pünta batetan düan zaldi büztan bat erabiltez. Behi txintxak badütü gerrikoan.

* **Gatüzaina** : Esküetan düan sorginhaixtür bat erabilten dü. Horren itxüra hanitx kanbiatü da azken mentean (ikus Thierry Truffauten ikerketa)

* **Kantiniersa** : Lehen, buhamina bat zen horren leküan.

Louis Lucien Bonaparteri batzarri egiteko zen kantiniersa bat ezarririk izan, Printze bati hobeki zoakiola-koan, omen...

* **Zamalzaina** : gizonertzaldia ohitarazten dü.

* **Entseinaria** : Xiberoko entseina edo ikurriña erabilten dü.

Bost horiek dütüe dantza ederrenak emaiten. Urte zonbaitez edo bederen hilabete lüze zonbaitez erauntsi düe ikasten hein hortara heltzeko. Ontsalaz, *Txerreroak* azkar izan behar dü *Kantiniersak* arin eta motiko eijer, ez sobera handi, *Zamalzainak* azkar, zale, dantzari hoberena da. *Entseinaria* lüze da eta dantzari fia, *Gatüzaina* entrebalena da.

* **Jauna eta Anderea** : *Jauna* da maskaraden бүрүзagia. Harek dütü oro manatzen. Lehen, herriko gazteen nausi egoiten zen ondoko maskaradetara. *Anderea* : espusa baten arropa xurian agertzen da orai (ikus Jean Dominique Lajoux-ek kargü horien erran nahiaz zer dion).

Pour le déjeuner, il y a quelques règles, selon le lieu d'origine de la mascarade, ou selon les habitudes du village qui la reçoit.

Il y a 2 possibilité : faire déjeuner les acteurs au restaurant ou les inviter dans les maisons.

Dans le premier cas, tous les acteurs peuvent déjeuner dans le même restaurant. On peut aussi les séparer : les rouges dans un restaurant les noirs dans l'autre par exemple.

Lorsque les acteurs sont invités dans les maisons, il y a quelques règles qui méritent qu'on s'y intéresse. Voici ce qui peut se produire dans ce cas :

Normalement, le Maire invite Jaun et Anderea, son adjoint Laboraria eta laborarisa.

S'il y a dans le village un Txerrero, un Zamalzain ou d'autres danseurs, chacun invitera celui qui tient le même rôle dans les mascarades.

Si un acteur a de la parenté dans le village qui reçoit il ira déjeuner chez ce parent S'il avait un grand ami dans ce village il irait chez cet ami. L'invitation peut être aussi le remboursement d'une vieille dette. L'invité ayant été invité lors d'une précédente mascarade.

Dans ce dernier cas, grâce aux mascarades, lorsqu'une rencotnre a lieu entre les villages, il y a aussi rencontre entre les enfants de certaines maisons.

Par conséquent, les règles d'invitation peuvent être ainsi définies :

1 - La loi de hierarchie : lorque le hierarchie de l'organisation villageoise et la hiérarchie de la mascarade secroisentaumomentdupas,

Lehen hiruak ihautirietako janariak dira, egüerdiko bazkarian deserta gisa berriz eskentürük direnak. Bazkariteko püntüan egin molde zonbait bada, bisitazaleak nonko diren eta bisitatüen ohidüren arabera .

Bi haütü bada: maskaradakarien herriko ostatüan bazkalaraztea edo etxetarat kümitaztea. Lehen kasüan, denek ber ostatüan jan lezakee edo bi ostatüetan : gorriak ostatü batetan, beltzak beste batetan, eman dezagün. Etxetan bazkaritan denean kümitazteko lege zonbait agertzen da eta balio dü hetaz mintzatzea.

Beraz, etxeetako bazkarian holako alkarretazteak agitzen dira. Ontsalaz, aüzapezak maskaradetako Jaun Andereak hartzen dütü, haren ordariak Laborari eta Laborarisa hartüko dütüalarik .

Herrian, Txerrero, Zamalzain edo beste dantzari balitz, bakoitxak ber kargüa düan dantzaria kümita liro . Maskaradakariak askazi balin badü bisitatürük den herrian, askazi horren etxen bazkaltüko da edo maskaradakariak adiskide handi bat balü herri hortan, haren etxen bazkal leite .

Kümitüa zor baten pakatzea lizateke bardin: kümit dena aitzineko maskarada elibatetan kümitazale izan zelakoz. Azken kasü hontan, maskaradak direlakoz, etxe zonbaitezako seme alabek alkar ikusten düe, herriak kürützatzen direlarik . Beraz, kümitüaren bideek bost lege jarraik lezakee :

1. Hierrarkiaren legea, herriko antolamentüaren hierrarkia eta maskaradaren hierrarkia mahain gainean batzen direnean .

2. Maskaradetako kargüen legea harzalek eta hartürük direnek ber kargüa etxeki edo etxekitzen düelarik

et à boire à gogo. Les acteurs se moquent gentiment de ceux qui les reçoivent, se rient de leurs mésaventures. Les danseurs donnent tout ce qu'ils peuvent en dansant le mieux possible. Chacun essaie de se faire plaisir et de partager ce plaisir. ...

...Autrefois il était plus facile de faire des mascarades. Il y avait beaucoup de jeunes et de main d'oeuvre. Aujourd'hui c'est difficile, les quartiers se vident. Il n'y a plus que 7 ou 8 enfants dans les écoles des villages, menacées de fermeture. Avant il y avait quasiment mille personnes par village. Il n'y en a plus que dans les deux cent dans beaucoup de communes. Mais un village qui prépare une mascarade témoigne de sa force, de sa jeunesse, et de sa foi en l'avenir....".

Lorsqu'une mascarade se rend dans un village, la décision n'est pas uniquement prise par les visiteurs. Il y a un processus particulier.

En préparant les mascarades, la jeunesse envoie une lettre aux autres villages, pour savoir quelles sont leurs intentions. Ces villages décideront s'ils doivent inviter la mascarade ou non. Une rencontre a lieu ensuite pour choisir une date. Pour le village où se rend la mascarade, c'est la fête, et l'on mange et l'on boit plus que de coutume.

Les mets offerts lors des barricades du matin sont rituels. Ils sont de quatre sortes : de gros beignets, des crêpes, des merveilles ou enfin des galettes, biscuits ou gateaux. Les premiers sont propres au carnaval : ils sont à nouveau offerts pour le dessert au repas du midi.

ase bezain bat .

Maskaradakariak herritarrez errigiten dizüie eta trüfa merke düzüü. Dantzariak dakiena oro agertzen dizüie, ahal bezain ederki jauztez algarri plazer eman gei beitiie denek.

...Lehen aisago egiten zütüzün maskaradak etxe orotan beitzien jente gazte eta eskü franko. Egün haatik, gaitz düzüü, kartielak hüsten ari beiti-ra. Orai ez düzüü zazpi edo zortzi haur baizik herriko eskoletan, eta abantxü zerratzekoak dütiüzü.

Lehen bazüzün mila jente, zerbait eskaz, herrikal eta orai berrehün bat iraganik baizik ez düzüü herri hanitxetan. Holaz dü herri batek bere indarra eta geroa segürtatzen düan bere gazteria beste erakasten maskaraden medio " .

Herri batetako maskaradak Züberoko beste herrietara joatea ez da bisitazaleek berek hartzen düen erabakia.

Bada prozezüz bat : maskaraden plantatzearekin herriko gazteriak eskütitz bat igorten dü beste herrietara, heren xede berri jakiteko Herri horiek düe deliberatzen maskarada egileak kümitatüko dütienez ala ez. Alkarrekin da gero egün bat haütatürik. Bisitatürik diren herrietan besta jei egün handia da, manera berezi batez jaten eta edaten delarik .

Goizanko barrikadetan eskentzen diren jatekoak erritüalak dira. Lau janari mota emaiten da txestazera : kauserak lodi eta biribil, matahameak, jezuitak edo merveillac eta azkenik, galetak, bixkotx edo arroskillak .

* **Laborari eta laborarisa** : vétus de noir. Ils n'ont pas de rôle précis, si ce n'est lors du branle.

* **Marexalak** : les maréchaux ferrands. Trois ou quatre en général. Ils ferment le cheval.

* **Kükülleroak** : pas de rôle précis. Ils permettent la participation des plus jeunes et des futurs danseurs.

* **Kerestuak** : les hongreurs, difficiles à classer. Apparaissent parfois chez les rouges, parfois chez les noirs dans d'autres mascarades. Souvent on prenait d'anciens danseurs pour jouer le rôle. Ils sont béarnais et parlent cette langue. Ils doivent castrer le cheval.

* **Laborari eta Laborarisa** : beltzez beiti, ez düe egiazko lanik, non ez den Bralean.

* **Marexalek** kasabet gorriak dütiie eta zaragoila beltzak. Hiru edo lau dira. Zaldia ferratzen düe.

* **Küküileroak** : Gazteenak ; ez düe egiazko lanik maskaradetan bena biharko dantzariak hor dira, ikasteko eskola hoberenean beiti-ra maskaradetan.

* **Kerestuak** : Ez genezake xüxen erran beltz ala gorrietan direnez, denetan ikusten beiti-ra. Dantzari ohiak ziren hor ezarririk lehen (eta orai ere builtaka) eta biarnesez mintzo dira. Zamariaren osatzea da beren lana.

B) LES NOIRS :

* **Xorrotxak** les rémouleurs évoquent une tradition originaire d'Auvergne. Se déplacent en chantant toujours un couplet, souvent sur le même air pour critiquer les acteurs qui les précèdent ou les suivent. Leur rôle est d'affûter l'épée de Jauna.

* **Buhameak** : les bohémiens. Leur chef, Basagaitz, et ses sujets. Sauvages, grossiers, fuyant le travail vivant des rapines car c'est la loi qu'ils promulguent dans leur prêche.

* **Kauterak** : les plus vilains, souvent masqués. Kabana est leur chef. Ils "réparent" spectaculairement le chaudron de Jauna pendant que Kabana récite son prêche tournant à la dérision tel ou tel événement du village qui reçoit la mascarade (pour les prêches, voir la contribution de François Fourquet).

Pitxu est le kauter le plus petit mais le plus habile et comique, très farceur surtout quand les chefs hongreurs ou rémouleurs l'appellent à l'aide après avoir mis leurs collaborateurs à la porte. Pitxu meurt à la fin des mascarades, écrasé par ces "buhame" et "kauter". Heureusement, le médecin est là pour l'opérer et le ressusciter. (Voir Truffaut et Lajoux.)

Lorsqu'il y avait assez de monde, il y avait de nombreux autres rôles. Les sapeurs (Chéraute), le barbier, l'ours et les agneaux. Ainsi que les Aintzindari noirs, doublés des rouges (un groupe entier à Ordiarp en 1993).

Un "txülülari" et un tambour assurent toute la musique des mascarades. Parfois, le txülülari s'aide aussi d'un tambourin à corde ("Ttun ttun).

B) BELTZAK :

* **Xorrotxak** : Auvergne esküaldetik horra dira. Kantan ari dira beti joküen artean. Jaunaren ezpata zorrozten düe beren joküan, kantore baten emaitetz, aharratzen ez direlarik

* **Buhameak** : Basagaitz erregea eta haren mitilak. Basa dira, beti txostakan ari, lanari ihes, Buhame Jaunak bere perediküan aipatzen düan legeari jarraikiz. (Ikus François Fourquet-en ikerlana).

* **Kauterak** : Itsusienak, begitarteak mozorroz gorderik, txapelak eta jauntsiak adar eta lümaz edertürük. Kabana da hen nausia. Jaunaren bertza düe zapartagarriki betatxatzen. Kabana jenteren jor-ratzen ari da eta astokeria hanitx igorten dütü bere mintzaldian (ikus F. Fourquet-en ikerlana).

Pitxu da haren mitilik xotilena bena kokillotena ere. Beti tximinokeria egiten ari da, Kerestuek eta Xorrotxek beren mitilekin aharratürük, lagüngoia galtegiten dioielarik, bereziki. Zoritxarrez, Pitxu hiltzen da maskarada ürrentzean, Buhame eta Kauterek lehertürük. Behar ere, sendagile edo bedezia hor da. Zer nahi elkitzen deio tripatik eta tiro batekin da Pitxu arrapizten (ikus Truffaut eta Lajoux en idazkiak).

Aski jente bazelarik, beste personaje hanitx bazen: Zapürarak (Sohütan), Bizar egilea, Hartza (Müskildin 1987ean), Axuria eta Aintzindari beltzak ere (Urdiñarbek talde oso bat presentaten dü 1993.ko maskaradetan)

Txülülari eta atabalariak dira sonü egileak beti. B uiltaka, txülülariak, Tanbuila edo T tunTtuna ere joiten dü.

Un aspect de la mascarade : l'invitation au repas.

Kepa Fdz de Larrinoa

Les mascarades souletines ont évidemment un rapport avec le carnaval ainsi qu'avec le théâtre populaire, la poésie, le chant de groupe, les contes populaires, les costumes et la danse. C'est une fête particulière. C'est ainsi que les chercheurs s'y sont intéressé de près, afin de les observer. Chacun décrivant sa théorie.

Péréniscences d'anciennes religions, croyances actuelles, suite des folles fêtes au moyen âge, rite symbolique mettant le monde sans dessus-dessous. Toutes les hypothèses ont été avancées. Quand à moi j'ai essayé d'analyser les mascarades en tant que "méthaphore sociale".

J'ai agi de la sorte car je crois que la propre opinion de mes amis souletins a une grande importance. Voici ce qu'en disait un d'entre eux :

"...La mascarade, c'est la fête tout simplement. Les jeunes du village se rassemblent d'une façon particulière et différente. Il n'y a plus d'obstacle à la camaraderie. Je veux dire que c'est l'occasion de partager quelque chose de particulier avec des gens que l'on ne connaissait pas autrement.

... Grâce aux mascarades, les jeunes se réunissent, c'est une véritable communion. La jeunisse d'un village se déplace vers un autre village qui lui donne à manger

Maskaradetako ohidüra berezia : bazkariteko kümitüak

Kepa Fz de Larrinoa

Züberoko maskaradekihautiria- rekin zer ikusi handia badüe, bai eta herri antzerki, poesia, talde kantore, herri kontakizün, jauntsi eta dantzarekin .

Maskaradak jei bereziak dira, hots hartakoz da ikerlari hanitx huillantü, jakiteko zer agitzen den maskaradetan. Bakoitxak bere teoria izkiribatü dü. Sineste zahar baten ondarrak direla edo oraiko sinesteak; erdi aroko ospakizün harroen segida dela ; mündüko gaüzak oro zankazgora agerarratzen dütüan errito sinboliko bat dela edo beste .

Bena nik metafora sozial gisa düüt maskaradak ikertü ene lanetan eta hori egin dü Züberoko adiskideen ikus moldea beharrezkoa dela uste beüt. Hona hetarik batek zer dion :

"...Maskarada zera düzü, bestaren egitea sinpleki, manera sinple batez bestaren egitea. Herriko gazteak bide berezi batez alkarretaratzen dü-tiüzü, molde liferent batez, eta adiskidetarzüanaren mügak idekitzen dütiüzü. Erran nahi beita, besteinaz ezagütiüko ez zünükean jentearékilan inportant den zerbait partekatzen düzüla .

...Maskarader esker, jentearolatzen düzü, egiazko komünione bat düzü . Herri batetako gazteria beste herri batetara badoazü eta herri hortakoek jatera eta edatera emaiten diozü, ahal bezain beste,

psychopompe de transporteur des âmes des morts), d'Errege Xalamon et de Matéo-txistu(s)...

Le gatuzain pourrait bien trouver son origine dans ce personnage errant, couvert de haillons, marginal, chargé chaque année dans cette période de débarrasser les maisons des morts de l'année, avec l'aide de son "gatu" et par la même occasion de se payer en victuailles...

(1) *Guilcher Jean-Michel "la tradition de danse en Béarn et en Pays Basque français". Editions de la Maison des Sciences de l'Homme. Paris 1984.*

(2) *Idem*

(3) *Duvert Michel " les Mascarades nocturnes en Soule". Revue Dantzariak Bilbao.*

(4) *Arnandin. Contes de Gascogne.*

(5) *Barandiaran José Higuel de "Dillinario de Mizologia vasca". La grande encyclopédie Vasca Bilbao 1972*

Déroulement d'une mascarade :

Pour le déroulement des mascarades nous nous contenterons d'observer le programme de celle d'Ordriar en 1993 :

- » de 10 heures du matin à 13 h environ, barricades
 - » Repas chez l'habitant
 - » 16 heures : entrée sur la place et barricades
 - » Muñeñak: danse en rond exécutée par tous les danseurs
 - » Marianak : danse en rond exécutée par tous les danseurs
 - » Xorrotxak : un couplet
 - » Marexalak : ferrent le cheval qui boite encore. Il est referré et peut gambader à nouveau
 - » Xorrotxak : un couplet
 - » Bralea (le branle) : exécuté par les rouges et des personnes prises dans le public. Danse très importante. On ne pouvait concevoir aller à Tardets sans danser le branle. Lorsque plusieurs mascarades s'y retrouvaient, celle qui dansait le branle était tirée au sort.
- Cette danse se déroule en trois parties :
- * Kontrapasak: exécutés par tout le monde
 - * Braletik jautzia : les aintzindari exécutent leurs points les plus spectaculaires et savants.
 - * karakoiltzea : l'escargot mené par l'Entseñari: la chaîne avance dans le cercle, en ressort, y revient : danse du soleil ? Temps qui revient sur lui même ?

- » Xorrotxak : un couplet
- » Kerestuak : le maître ordonne

Maskarada elibaten ürratsak :

Maskarada baten ürratsak kon-tatzeko, 1993. ko Urdiñarbeko mas-karadak aipagei hartuko düttügi :

- » 10etarik oren bakotxeala barrikadak
 - » Bazkaria.
 - » Arrastiriko lauetan, plazan sartzea eta barrikada haustea.
 - » Muñeñak (üngurüan emanik diren jautziak).
 - » Marianak (AitzinaPika üngürüan emanik).
 - » Xorrotxak : kobla bat.
 - » Marexalak: zaldia, zamaria ferratzen, gaixki lehenik, behar bezala gero.
 - » Xorrotxak : kobla bat.
 - » Bralea : gorriak eta publikoan hartürük diren neskatilek katea bat egiten düe; hiru puxka bada Bralean.
 - * Kontrepasak (jautzia baratx baratxa emanik).
 - * Braletik jautzea (Aintzindariek püntü hoberenak erakusten düttüe hor).
 - * Karakoiltzea : dantza horren erroak balinban. Enseñariak dü hori eramaiten eta katea kurriarazten baretik eta kanpotik. Denboraren arra ütztüztzea lizateke. Junes Casenave-Harigilek dio ekiaren dantza dela, biziaren eta argiaren laidatzeko.
 - » Xorrotxak : kobla bat.
 - » Aintzindariak : ostalersa (dantza).
 - » Xorrotxen joküa : Heben ere nausiak mitila kanpoan ezarten dü.
- Mitilarekin dü filabait jaunaren ezpa-

en béarnais à son valet d'aller chercher le cheval. Danse, soif, celui-ci fait tout pour ne pas travailler. Lorsqu'il finit par obéir, il laisse échapper le cheval et se fait renvoyer. Le maître appelle Pitxu qui lui apporte la cantinière donc une jument. Difficile à castrer ! C'est en rappelant le valet que le maître peut enfin accomplir sa tâche.

- » Xorrotxak : un couplet
- » Aitzindariak : ostalera (danse en rond)
- » Xorrotxak : ce coup-ci les rémouleurs sont sur la scène. Comme précédemment, le maître veut aiguïser l'épée de Jauna. Dispute. Le valet s'en va. Appel de Pitxu. Pitgeries. Rappel du valet. Affutage correct, en chantant à deux voix.
- » Aitzindariak : gabota. Ancienne pour les rouges. "D' Ordiarp" pour les noirs.
- » Buhameak : après avoir donné une espèce de danse du sabre, leur chef raconte leurs exploits à travers le monde, et assez grossièrement.
- » Aitzindariak : godalet dantza. Danse du verre. On remarque que monter sur le verre est le plus spectaculaire mais pratiquement le plus facile. Les points donnés autour du verre sont beaucoup plus difficiles s'ils sont bien exécutés.
- » Kauterak : doivent réparer le chaudron de Jauna. Exécutent une danse très bizarre. Le maître met ses "ouvriers" au travail. Pendant ce temps, il fait son discours égratignant les personnalités, se moquant de l'actualité, etc...

Lorsque le travail est fait il est d'abord refusé et quand Jauna l'accepte, il jette l'argent. Tous les noirs se précipitent et Pitxu est

» Aitzindariak : Gabota (zaharra .gorrientako). Urdiñarbekoa beltzentako.

» Buhameak : dantza basa bat eman eta, Buhame jaunak bere balentriak kontatzen dütü, gizenki üsüan.

» Aitzindariak : Godalet dantzak.

» Kauterak : Nausiaren bertza betatxatü behar düe. Dantza berezi bat emaiten düe, lehenik бүрүз бүрү, үзкүз, saihetsealat, beren txapelak esküetan. Horrek ere bere erran nahia badü segür ere. Nausiak mitilak lanean ezarten dütü eta bere perediküa egiten, erri eginarazteko prefosta.

Jaunak lanaren pakatzeko, sosa urtukitzen düalarik da Pitxu, Buhame eta Kauterek egiten düen atearen pean atzamanik. Hiltzen da bena Bedeziak operatzen dü eta arrapizten da. Berri hon horren ospatzeko, maskarakari oroek eta soegiletarik jin nahi direnek Muñeñak emaiten dütüe. Azken barrikadak emanik dira plazan berean eta hola dira maskarakak ürrtentzen.

Lehenago, hoinez zirelarik kurritzen, maskarakariak arrajüntatzen ziren beren herriko plazan. Jauziak emaiten zütüen eta zaharra- goen kritikak entzütüen ; bekan ziren laidatürik.

“gathu” d’attraper une jeune fille située au balcon.

Cela évoque aussi certains récits qui en Soule disent que cet instrument servait à la fois à attrapper les jeunes filles, à faire peur aux enfants, à ouvrir le chemin à la mascarade (alors qu’aujourd’hui le rôle revient à la Txerra du Txerrero) et à pendre des saucisses accrochées aux plafonds des maisons visitées, spécialement lors des mascarades nocturnes des Maskak (2). Lors de ces mascarades des personnages dépenaillés, masqués, entraient dans chaque maison menés par le “gatuzain” personnage déguisé en tenant un “gatu”. En Haute-Soule, il est même dit qu’il venait chercher la part düe au Basa-Jaun (3).

Cette situation consistant à rentrer dans les maisons rappelle aussi le personnage d’Arlequin. Une autre gravure ancienne de 1580 nous présente un Harlequin jeux et loqueteux qui trouve son origine sans doute dans les personnages d’Hellequin, Hennequin (de la Hollande à l’Allemagne en passant par la Flandre) véritables damnés, errants aux habits déchirés et en lambeaux. C’étaient de véritables croquemitaines (personnages chargés d’effrayer les enfants) Ils venaient chercher les morts pour les emmener dans l’au-delà. Dans cette zone les carnivals de Wallonie possèdent de nombreux “Happe-chair”.

Ce mythe est particulièrement vivant en Gascogne et en Pays Basque sous le nom des chasses du Roi Artus (4) (la relation entre Artus et Hartza est intéressante surtout quand nous savons que l’ours possédait aussi jadis un rôle

erabilirik zela. Azken gertakari hau Maskak deitü gaüaz gaüeko maskarada elibatetan agitzen zen, maskatürik eta zirzilki bezti zen saldo bat etxeetan sartzen zelarik, Gatüzain bat aitzinean. Basabürüan bada errana ere Basa Jaunari zor zirenen bila horra zela hau.

Etxeetan sartze horrek ere Arlequin personajeareki zer bait lotüra balüke. Ezi, 1580. eko mürrü margo batek Harlequin zirzill bat erakusten deigü eta dakigüenez, pilda txar horietan kurritzen ziren eta haurrak iziarazten zütüen jente tristant elibat bat bezala ezagütürik ziren Alemania, Holanda eta Flandria gainti horietan. Kartiel horietan hilen txerka horra ziren beste mündüalat lagüntzeko.

Sineste hori ere bizi-bizian da Gaskoina eta Eüskal Herrian, 'Artus erregearen ihiztekak', 'Errege Xalamon' eta 'Mateo Txistu' izenez. Artus eta Hartzaren artean parekatze bat egitea ere balegoki zeren gogoan etxekei behar beita, lehenagoko denboretan, hartzaz ustekeria bazela hilen txerka horra zela.

Arren, Gatüzainaren sorterroa, bidez bide zebilen jente zirzill eta tristant horren oritzapenean litzateke eta honen egitekoa zen urte zaharrez etxeetan agitü ziren hilen eramaitea bere Gatüa baliatzez, ber zoinean ere, hatüen hartzez ordain gisa.

bouffons et nous laisse penser que le choix des deux couleurs jaune safran et bleu qui composent depuis plus de deux cent ans le costume du Gatuzain, ne sont peut être pas dues au hasard. En effet ces couleurs détonnent au milieu du groupe des rouges. Ces deux couleurs sont parmi les couleurs associées à la folie. Le jaune safran est l'une des plus employées pour caractériser la folie et la plupart des miniatures dans les manuscrits anciens utilisaient le bleu pour blasonner le fou !

Au passage signalons que d'autres personnages du Carnaval ou du folklore basque possèdent des costumes barriolés ou très colorés : le *Katxi* d'Oyaon en Alaba, le *Bobo* d'Otxagabia et les *Mozorros* de Lantz en Navarre.

Pourtant le costume du gatuzain n'était jadis pas celui là. Celui conservé au Musée Basque et qui date de la fin du XIXème siècle et du début du XXème siècle est blanc (pantalon et veste). La veste est garnie de petits noeuds, de rubans rouges et bleus, jaunes ou rouges. Ce type de costume évoque celui des Arlequins d'Ordinao en Andorre. Sur une tunique blanche sont cousus d'autres morceaux de tissus, mais le blanc reste dominant.

Si notre hypothèse est justifiée, il s'agirait donc bien d'un personnage de ce type que représenterait le gatuzain.

Une deuxième gravure nous permet d'aller un peu plus loin dans notre recherche. Elle représente le carnaval de Rome au XIXème siècle et est conservée au Musée des Arts et Traditions à Rome. Nous pouvons y voir un personnage essayant avec un

